

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gas-app:

Gure proposamenaren balorea kalitatean eta originaltasunean oinarritzen da. Izan ere, gure app-ak abiadura ezinhobea eta erabilera-kostu bazuak eskaintzen ditu. App honek giza-ororen bizi kalitatea hobetuko du. Gaur egun gure gizartean erosotasuna eta abiadura ezinbesteko ezaugarriak dira edozein zerbitzutan. Gure helburua gasoleo industrian ezaugarri moderno horiek txertatzea zen eta horregatik, hain zuzen ere, erabaki genuen Gas-app garatzea. Bestalde, errepidean gasoleorik gabe geratzeagatik ezarritako isunak (400 eurotik gorakoak gehienak) eta errepidean gasoleorik gabe geratzearen kezka konpotzen du. Horregatik, hain zuzen ere, erabaki genuen zerbitzu berezi hau garatzea, errepide erdian ezuztekorik gerta ez daitezen.

Adibide garbi bat hurrengoa da: Langile bat bere enpresara joan da lan egitera, baina heltzean, gasolarik ez duela konturatzen da. Beste gasolindegira batera joan beharrean, app honi esker, langile hori lanera joan ahal izango da, eta bitartean, gasolindegira hurbil bateko langile batek bere kotxearen (edo motorra, karabana, furgoneta...) gasolina biltegia beteko du.

Zerbitzu hau eguneko 24 orduetan zehar egongo da erabilgarri. Bestalde, Gas-app-ek ordainketa birtuala eskaintzen du (kontu bitarteko ordainketak) eta erabiltzaileari gasolina mota eta honen kalitatea (normala, premium, low cost...) aukeratzeko aukera ematen dio. Hau kontuan hartuta, gure Gas-app-aren abiadurak, kalitateak, edonon erabiltzeko aukerak eta eskaintzen duen sorta zabalak edozein garrailodun bezero erakarriko du.